

(2019/05/29tik indarrean dagoen testua)

LEGE-INFORMAZIOA

Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzko Legeak (uztailaren 11ko 34/2002) 10. artikuluan xedatzen duenez, informazioaren gizarteko zerbitzuen emaileak beharrezko baliabideak eduki beharko ditu hala zerbitzuaren hartzaileei nola organo eskudunei ondorengo informazioa, baliabide elektronikoen bidez, edozein unetan, erraz, zuzenean eta doan kontsultatzea ahalbidetzeko:

Domeinuaren izena: <http://www.ternuagroup.com>

Helbide elektronikoa: infor@ternua.com

Jabea: IMPORT ARRASATE SA merkataritza-enpresa; egoitza soziala: Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa), Kataide Musakola industrialdea, 25. pabilioia, Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua 1.230 liburukian, 104. folioan, SS-4.588 orrialdean, IFK: A-20212775 (aurrerantzean, «IASA»).

ERABILERA-BALDINTZAK

Esparrua, xedea eta irismena

Xedapen hauek (aurrerantzean, «ERABILERA-BALDINTZAK»), IASAk <http://www.ternuagroup.com> domeinuaren bitartez (aurrerantzean, «WEBGUNEAK») Interneteko erabiltzaileen esku (aurrerantzean, «ERABILTZAILERAK») jarritako webgunea kontsultatzeko eta zerbitzua erabiltzeko baldintzak arautzen dituzte.

Aurrekoaren kalterik gabe, IASAK WEBGUNEAREN bidez ERABILTZAILERAREN esku jartzen dituen eduki jakin batzuk kontsultatzeko eta zerbitzu batzuk erabiltzeko, baliteke baldintza berezi batzuk bete behar izatea (aurrerantzean, «BALDINTZA BEREZIAK»). Kasuan kasu, baldintza horiek erabilera-baldintza hauek ordezkatu, osatu eta/edo aldatuko dituzte, eta kontraesanik izanez gero, BALDINTZA BEREZIAK gailenduko zaizkie baldintza hauei. BALDINTZA BEREZI horiek aplikatu behar direnean, WEBGUNEAN bertan kontsultatu ahal izango dituzte ERABILTZAILERAK.

Ondorioz, aipatutako edukiak kontsultatu eta/edo zerbitzuak erabili baino lehen, ERABILTZAILERAK arretaz irakurri beharko ditu, eta kasuan kasu, aipatutako edukia kontsultatu eta/edo zerbitzua erabiltzerakoan, hori arautzen duten BALDINTZA BEREZIEK bertsio argitaratuta onartu.

IASAk beretzat gordetzen du eskubidea, edozein unetan eta inolako aurreabisurik eman gabe, ERABILERA-BALDINTZA hauen edukiak aldatu edo eguneratzeko, bai eta, dagokionean, gauza bera egiteko BALDINTZA BEREZIEK eta, oro har, WEBGUNEAREN diseinua eta konfigurazioa osatzen duten elementu guztietan ere.

WEBGUNEAREN azken eguneratzean argitaratutako ERABILERA-BALDINTZAK bete beharko dira, eta bisitaldi bakoitzean, une horretan WEBGUNEAN argitaratuta daudenak izango dira aplikagarriak.

ERABILTZAILERAK, WEBGUNEAN sartzean, webgunearen erabilera-erregimena arautzen duten ERABILERA-BALDINTZA hauek onartu eta baimenduko ditu, berariaz eta eragozpenik gabe, eta onarpen horrek izenpetutako idatzizko edozein kontraturen baliozkotasun eta eraginkortasun berberak izango ditu. ERABILTZAILERAK ez baditu ERABILERA-BALDINTZA hauek osorik onartzen, ez du WEBGUNEAREN sartzeko baimenik

izango.

ERABILTZAILEAREN erregistroa eta pasahitza

WEBGUNEA erabiltzeko eta/edo IASAk horren bidez eskura jarritako eduki eta/edo zerbitzu jakin batzuetarako sarbidea izateko ERABILTZAILE gisa erregistratu beharra egongo balitz, erabiltzailea horretarako informazio egiazkoa eta legezkoa ematearen erantzulea izango da.

Aipatutako erregistroa IASAk unean-unean finkatuta daukan moduan gauzatuko da eta erregistro horren bidez ERABILTZAILEARI (i) «log» identifikatzaile bat eta (ii) pasahitz bat emango zaizkio, saioa edozein unetan hasi ahal izateko, WEBGUNEAREN erabiltzaile erregistratu gisa.

ERABILTZAILEAK esleitzen zaizkion identifikatzailea eta pasahitza modu egokian erabili beharko ditu, horiek zaintzearen eta isilpean gordetzearen erantzulea izango da eta hirugarrenei ez uzteko –ez aldi baterako ez betiko– konpromisoa hartuko du, baita bestelako pertsoneri sarbidea ez ahalbidetzekoa ere.

Norbaitek identifikatzailea eta pasahitza lapurtu edo baimenik gabe eskuratzen bada, edo galtzen bada, ERABILTZAILEAK berehala IASARI jakinarazi beharko dio, azken honek baliogabetu ditzan. IASA ez da inola ere baimendu gabeko hirugarrenek ERABILTZAILEAREN identifikatzailea eta pasahitza erabiliz egindako ekintzen erantzulea izango, ERABILTZAILEAK aipatutako jakinarazpena egiten ez dion bitartean.

WEBGUNEAREN sarbide eta erabilerarekin lotutako baldintza ekonomikoak.

BALDINTZA BEREZIAN besterik adierazi ezean, WEBGUNERAKO eta bertako edukietarako sarbidea doakoa da, ERABILTZAILEAK bere hornitzailearekin kontratatuta daukan telekomunikazio-sarerako konexioaren kostua izan ezik.

Jabetza Industrialaren eta Intelektualaren eskubideak

WEBGUNEAREN gaineko Jabetza Industrialaren eta Intelektualaren eskubide guztiak legez erreserbatuta daude eta ERABILTZAILEAK sarbidea izateak edo erabiltzaileak ez du esan nahi, inola ere, IASAREN eta/edo edozein hirugarrenen titularitatekoak edo jabetzakoak diren aktiboen erabilera lizentziarik edo eskubiderik ematen zaionik. Eskubide erreserba hau (i) bai kanpoko itxurari (look and feel) eta WEBGUNEAREN nabigazioaren kode, diseinu eta egiturari (ii) bai WEBGUNEAN dauden eta zabaldu daitezkeen edozein formatutako edukiei dagokie eta, batik bat, IASAK WEBGUNEAN jar lezakeen edozein katalogo, diseinu eta publizitateko material.

WEBGUNEAN izen komertzialen, marken, logotipoen edo bestelako ikur bereizgarrien erreferentziak barne hartzen badira, dela IASAREN titularitatekoak dela hirugarrenenak, debekatuta egongo da horiek erabiltzea IASAREN berariazko baimenik edo legezko titularren baimena eduki ezean.

Ondorioz, ERABILTZAILEAK WEBGUNEAREN bitartez bere esku jarri diren edukiak eta zerbitzuak modu pertsonalean eta pribatuan bakarrik ikusi eta erabili ahal izango ditu, betiere aipatutako eduki eta/edo zerbitzuekin jarduera komertzial edo profesionalik egiteko helbururik gabe.

Halaber, debekatuta dago WEBGUNEAK funtzionatzeko, sarbidea izateko eta erabili ahal izateko beharrezkoak diren ordenagailu programak deskonpilatzea, desmuntatzea, atze-

ranzko ingeniarietza egitea, azpilizentziak ematea edo edozein modutara transmititzea, itzultzea edo lan eratorriak egitea. ERABILTZAILERAK WEBGUNEAN instalatutako edozein babesgailu edo segurtasun-sistema ezabatu, aldatu, saihestu edo manipulatzeari uko egin beharko dio.

Erantzukizunak eta bermeak

WEBGUNEA erabiltzen duenak bere erantzukizunpean egiten du. WEBGUNERA sartzean, ERABILTZAILERAK hitz ematen du (i) ez duela IASAREN edo hirugarrenen irudia, interesak eta eskubideak kalte ditzakeen ezer egingo, ezta WEBGUNEA kalte, ezgaitu edo gainkargatu dezakeen ezer ere eta (ii) Legeekin eta trafiko-erabilerekin guztiz bat datozen modu batean erabiliko duela.

Beraz, ERABILTZAILERAK IASAREN eta/edo hirugarrenen aurrean erantzungo du, betebeharrak urratzearen ondorioz kalte-galerak sortzen badira.

IASAK beharrezkotzat jotzen dituen segurtasun-neurriak onartzen ditu WEBGUNEAK behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko eta birusak eta osagai kaltegarriak hautamateko. Hala eta guztiz ere, ERABILTZAILERAK jakin behar du Interneten sistema informatikoen segurtasun-neurriak ez direla erabat fidagarriak, eta horrenbestez, IASAK ezin duela bermatu (i) WEBGUNEAN jasotako edukiak eta zerbitzuak edozein unetan eskuratu ahal izatea, (ii) aipatutako edukietan akatsik ez egotea, ezta gertatzen den edozein akats konponduko duela ere, (iii) birusik edo ERABILTZAILERAREN sistema informatikoak (softwarea eta hardwarea) edo dokumentu elektronikoak eta dokumentu horietan barne hartutako fitxategiak aldatu ditzakeen elementu kaltegarriak izango ez denik, (iv) ezta ezarritako segurtasun-neurriak gaindiezinak direnik ere.

Era berean IASAK erreserbatu egiten du zerbitzua zati batean edo erabat eteteko eskubidea, aldi baterako edo behin betiko, aldaketa tekniko edo matxuren aurrean; posible izanez gero, alde aurretik jakinaraziko du, WEBGUNEAREN bidez edo horren harira gaitutako beste edozein baliabideren bidez.

ESTEKAK

Gune estekatuak

WEBGUNEAREN bidez, IASAK ERABILTZAILERARI eskaintzen dizkio IASAK inola ere kontrolatzen ez dituen hirugarrenen jabetzako eta/edo hirugarrenek kudeatutako Interneteko beste gune edo atari batzuetara (aurrerantzean, «GUNE ESTEKATUAK») bideratu ditzaketen estekak egiteko gailu teknikoak (adibidez, botoiak, lotura eta bannerrak).

ERABILTZAILERAK kontuan hartu behar du estekak egiteko gailu horiek erabiliz WEBGUNE-TIK GUNE ESTEKATUETARA sartuz gero ERABILERA-BALDINTZA hauek aplikagarri izateari utziko diotela.

IASAK ez ditu GUNE ESTEKATUETAN jasotako eduki eta zerbitzuak ez ezagutzen ez kontrolatzen eta WEBGUNEAREN bitartez horietarako sarbidea emateak ez du inola ere esan nahi (i) IASAK GUNE ESTEKATUETAN barne hartutako eduki eta zerbitzuak aholkatu edo onartzen dituenik eta/edo (ii) IASAREN eta GUNE ESTEKATUAREN arduradunaren arteko harreman, elkarlan edo dependentziarik dagoenik.

Ondorioz, IASAK ez du GUNE ESTEKATUEN gaineko inolako erantzukizunik hartzen bere gain, eta beraz, ez da ez haien funtzionamenduaren, ez horiek barne hartzen dituzten

eduki eta zerbitzuen ezta GUNE ESTEKATU horietan barne hartutako esteken gaineko inolako erantzukizunik hartzen bere gain.

ERABILTZAILEAK GUNE ESTEKATU bateko edukiak, zerbitzuak edo bestelako edozein jarduera legez kanpokoak edo desegokiak direla jakinez gero, IASAr berehala jakinarazi beharko dio, kasuan kasu, egokitzen jotzen dituen neurriak har ditzan.

Hiperestekak

Beste gune edo web-orri batzuetan hipertestuatarako loturak (hiperestekak) egitea baimentzen da, <http://www.ternuagroup.com> webgunearen hasierako orrira zuzenduta baldin badaude, o kasuan kasu, WEBGUNEAREN barruko beste edozein orrira (deep link), eta orri horiek leihos batean agertzen badira, dagozkien URL helbideekin, WEBGUNERAKO hiperesteka jartzearen ondoriozko edozein erantzukizun bere gain hartuta.

Hiperesteka agertzen den webgune edo web-orrian ezingo da inola ere adierazi IASAk hiperesteka hori jartzeko baimena eman duenik, IASAk idatzizko berariazko baimenik eman ez badu.

Bere webgunean edo web-orrian hiperesteka jarri duen hirugarrenak IASaren marka, izena, izen komertziala, errotulua, logotipoa edo IASaren titulartasuneko eta/edo WEBGUNEAREN ingurukoa den beste edozein elementu identifikatibo barne hartu nahi baldin badu, horretarako IASaren alde aurretiko baimena beharko du, berariazkoa eta idatzizkoa.

Aurretik esandako guztiari kalterik egin gabe, <http://www.ternuagroup.com> webguneko web-orri bat IASakoa ez den beste webgune bateko leihosan framing teknikaren bidez agertzea erabat debekatuta dago, IASaren berariazko baimena izan ezean.

Halaber, <http://www.ternuagroup.com> webgunearen bidez zabalduko edozein eduki WEBGUNEKOA ez den beste webgune edo web-orri batean in line linking teknikaren bidez agertzea ere guztiz debekatuta dago, IASaren berariazko baimena eduki ezean. Hiperesteka bat aurretik esandako baldintzak betez jartzeak ez du inola ere esan nahi IASaren eta hiperesteka agertzen den webgunearen edo web-orriaren jabearen artean harremanik dagoenik, ezta IASak bere edukiak eta/edo zerbitzuak onartu edo ontzat ematen dituenik ere.

Edozein kasutan, IASak WEBGUNERAKO edozein hiperesteka edozein unetan debekatzeko edo baliogabe uzteko eskubidea izango du, bereziki hiperesteka agertzen den webguneko edo web-orriko jardura eta/edo edukiak legez kanpokoak baldin badira.

PRIBATUTASUN POLITIKA. DATU PERTSONALEN BABESA

Erabiltzaileek esteka honetan dute IASAK beren datu pertsonalei emango dien tratamenduari buruzko informazio xehetu guztia.

COOKIE-POLITIKA

WEBGUNEAK cookie artxiboak eta/edo antzeko datuak metatzeko eta berreskuratzeko bestelako tresnak erabiltzen ditu.

Halaber, jakinarazten dizugu IASak cookie-politika bat duela, esteka honetan kontsultagai.

LEGEDIA ETA JURISDIKZIO APLIKAGARRIAK

ERABILERA-BALDINTZA hauek Espainiako antolamendu juridikoaren mende daude. WEBGUNEAN sartu eta IASAK WEBGUNEAREN bidez ERABILTZAILEAREN esku jartzen dituen edukiak eta/edo zerbitzuak eskuratzearekin lotutako edozein gatazka ebazteko, ERABILTZAILEAK eta IASAK Donostiako Epaitegi eta Auzitegiei berariaz men egitea onartzen dute, legokiekeen beste edozein jurisdikzio orokor edo bereziri uko eginez.